

BERRIGARA

8. zenbakia

Jardun elkarteak, Bergara


1991, Otsailak 8



Miren Leturia



Karnabalak 91:
On egin daizuela
guztioi



Jon Lazkano:
Eskalatzaile baten
burutazioak



San Blasak:
Inoiz baino jende
gehiago

ELKAR

**Fotokopiak
Enkuadernazioa
Jendearentzako faxa
Plastifikazioa
Planoen kopiak**

Harruriaga 1, Behea, Tfnoa: 76 58 16 BERGARA

IBARGUREN PENTSUAK

" BIONA " pentsuen biltegia, " BIOTER " produktoak eta haziak.

San Pedro 3,

Tfnoa: 76 23 79

BERGARA

MAHER
BILTEGIAK L. E.
Oihal etxea

Bidekurutzeta 29, Tfnoa: 76 22 90
BERGARA 76 26 75



Jostailuak
Aeromodelismoa

Erdiko kale 19, Tfnoa: 79 17 87 ARRASATE

Nahikari

Mahasterreka. 29
Teléfono. 76 57 71
20570 BERGARA

MEMESA



SKF



Arrasate 79 42 22

Artxabaleta



EUSKARAREN ERABILERA
INDARTZEKO ELKARTEA

- * **EUSKARAZ IRAKURRI**
- * **EUSKAL KULTURA GOZATU**
- * **EUSKARAZ EROSI**
- *
- * **EUSKARAZ BIZI !**

DENA EGIN DAITEKE ZURE LAGUNTZAREKIN

EGIN ZAITEZ BAZKIDE !

ERROTALDE JAUREGIA

TFNOA: 76 03 97

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkartea

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara
Tfnoa: 760397

Laguntzailea: Bergarako Udala

Zuzendaria:

Miguel Angel Elkoroberebizbar

Erredakzioa: Jon Andueza

Maketazioa:

Edume Arenaza. Jon Andueza

Publizitatea eta herpidetzak:

Ignazio Irigoien. Edume Arenaza
Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua: Jose Angel

Mikoa, Estepan Plazaola eta Juan
Martin Elexpuru

Kolaboratzaileak: J. Oregi, A.

Urzelai, Maripi Laskurain, Silvia Sanz,
Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel
Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel
Elkoroberebizbar, Josune Iñarra eta
Xabier Aranburu, Aitziber Aretxaga
eta Ainhoa Bikuña

Argazki laborategia: I. G. Landa, A.

Gallastegi, B. Cantero, M. Leturia, K.
Retolaza, J.A. Eguren, J.I. Millan, J.
Aguayo, R. Vicente, J. Tabares, J. A.
Jauregi eta Kifu

Komikia eta marrazkiak Josu Okina
eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ofiati)

Banaketa ardura duna:

Txantxangorri Taldea

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 2.000 ale

Lege gordailua: SS 50/ 91

BERRIGARA ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta eri-
tzen erantzunkizunik.



8 OSTIRALA

- Zinea: "Always", 10.30etan.
- Erakusketa: Igandera arte, Pello Alberdiren margo erakusketa Kultur Etxean.
- Goardiako farmazia: Puy, Barrenkalen.

9 LARUNBATA

- Zinea: "Malas influencias", 5etan eta 7.30etan eta 10.30etan.
- Pilota partiduak: Frontonian, 4.30etan hasita, honako neurketa hauek ikusteko aukera: Ansotegi-Berna/ Loiarde-Urra; Alustiza-Zezeaga/ Salaberria-Errandonea; eta Irazola-Andueza/ Gabilondo-Andueza VI.
- Futbola: 4etan, Agorrosinon, preferente mailako Bergara eta Trintxerpe taldeen arteko neurketa.
- Karnabalak: 5.30etan Txoronpio eta Pantxi pailasoak; 7etan, talde eta banakako mozorro lehiaketa plazan; 11etan dantzaldia Ingu-ma taldearekin, eta goizalde-

ko ordubatetan, azkenik, mozorro lehiaketaren sari banaketa.

- Goardiako farmazia: Guayar, San Antonion..

10 IGANDEA

- Zinea: "Malas influencias", 5etan, 7.30etan eta 10.15etan.
- San Blas txiki: goizeko 11etan Meza Nagusia; eta 12etan, berriz, Igo San Blas Mountain Bike Saria.
- Karnabalak: 12.30etan, Bergarako Udal Musika Bandaren kontzertua Novedades aretoan; arratsaldeko 6.30etatik aurrera, dantzaldia plazan Korkoil taldearekin.
- Goardiako farmazia: Guayar, San Antonion.

11 ASTELEHENA

- Zinea: "Malas influencias", 7.30etan.
- Goardiako farmazia: Estella, Matxiategin.

12 ASTEARTEA

- Karnabal festa:
 - Jubilatuetan: 1.15etan bazkaria, eta ondoren dantzaldia.
 - Mizpirualden: 5etan merienda eta dantza.
- Karnabalak: 3.30etan haurren kalejira kaleetan zehar; Gazteleku fanfarrea giroa alaitzen; 7etan, TVT te-

lebistaren saioa plazan; Gaueko 10.30etan *Joselu anaiak*; eta 12etan, azkenik, sardinaren lurperatzea.

- Goardiako farmazia: Mozos, San Pedron.

13 ASTEAZKENA

- Hitzaldia: Jubilatuetan, 5etan, *Diabetesa Hirugarren Adinean* gaiari buruzko hitzaldia.
- Goardiako farmazia: Camacho, Bidekurutzetan.

14 OSTEKUNA

- Zine Kluba: 7.30etan, "Calles sin retorno" filmean-
ren emanaldia. Novedades aretoan.
- Goardiako farmazia: Puy, Barrenkalen.

Aukeran...

Jantzi zuen mozorroak; heldu dira aurtengo Karnabalak. Larunbatean, 5etan, sari ederrak dituzue zain plazan egingo den lehiaketan



Ziripot

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41
BERGARA

BRIKOLAIA AUTOMOZIOA

Turismoak, kamioiak, etab.

Bolu, Tfnoa: 764404 BERGARA

MAKAILO ETXEA

Makailo
kazuelak

gertatzen ditugu

Ibargarai 15

Kiñu

ARGAZKIDENDA

ARGAZKILARIAK

ARTEKALE 15
Tfnoa: 76 58 05
BERGARA

HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILEA
SUKALDERAKO ALTZARIAK

BOLU 24 Tfnoa: 76 30 57
BERGARA

**Aldoka
Maldoka**

Taberna

KRUZ GALLASTEGI
BERGARA

ANDVZY

ERAIKUNTZA
MATERIALEN
BILTEGIA.

Telleriko Lana Pol/Ind. San Juan
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41
Faxa: 76 00 58 BERGARA



LURRALDEari gutun irekia

Honako honen bidez, pasa den ur-tarrilak 24an, Antzuolan autobiarri buruzko bi bideoen, bata Foru Aldundiaren proiektuarena eta bestea Lurraldearen proiektuarena, konparaketaren inguruan antolaturiko saioan euskarak izan zuen (edo falta izan zuen) leku edo tratamendu salatu nahi dugu.

1. Antzuolako herriari begiratzuz (%70ak euskaraz badaki) onartezina da, bideo emanaldia anuntziatuz jarri ziren kartelak gazteleraz agertzea, bertan jarri ziren datuak edozeinek uler bait ditzake. Onartezina!

2. Foru Aldundiko bideoa euskaraz

ikusi ahal izan genuen arren, Lurraldearena erdara hutsean jasan behar izan genuen. Lotsagarria!

3. Hirugarren, eta azkenez, Lurraldeatik, Lurraldearen sorkuntza, garapena eta proiektua azaltzera etorri zenak, agurra euskaraz egin zuen arren, (nola ez!!), gainontzekoa gaztelera hutsez jaurti zigun (hobeto moldatzen omen zen gazteleraz). Errematea!

Jakin badakigu Lurraldeak bideo hori euskaraz ere baduela, eta ez baleuka, bere arazoa; eta azalpenak ematera etorri zenak, euskaraz ezin baditu eman, eman ditzala Madrilen, baina ez Antzuolan.




Gutun honek han elkartu, eta amorratuta eta erasotuta sentitu ginen euskalzaileen ohiartzuna izan nahi du. Dagokien belarri edo begietara helduz, ea nolabaiteko efekturik lortzeko gaiten. Besterik gabe, agur bat.

**Idolaz
Antzuolako Euskara Taldea**



- ERITETXEAK
- Osasun etxea 76 10 82
- Larrialdjak 76 12 94
- Arrasateko ospitalea 79 53 00
- GURUTZE GORRIA
- Bergara 76 55 76
- DYA
- Antzuola 76 62 91
- ANBULANTZIAK
- Bergaran 76 13 59
- Gipuzkoako anbulan. 45 87 44
- SUHILTZAILEAK
- Zubillagan 78 28 00

- POLIZIA
- Udaltzaingoa 76 14 69
- Ertzaintza 76 53 40
- GARRAIOAK
- P.E.S.A. 76 16 46
- Taxiak 76 19 50
- HIRUGARREN ADINA
- Mizpirualde 76 13 68
- Aitonak 76 21 40
- BESTELAKO ZERBITZUAK
- Udaletxea 76 39 42
- Epaitegia 76 14 72
- Kiroldegia 76 56 41
- Igerilekuak 76 20 51
- Kultur Etxea 76 44 46
- IMI 76 55 49



Emakumearen Laguntzarako Zerbitzua

Aurrerantzean, Anbulategian dagoen Emakumearen Laguntzarako Zerbitzua astelehen, asteazken eta ostiraletan aurkituko duzue zabalik, goizeko 10etatik eguerdiko ordubetetara. Zerbitzuak, bestalde, Yoga eta Elikadurari buruzko ikastaroak iragarri ditu. Yoga otsailaren 20an hasiko da (asteazken eta ostiraletan, Mizpirualde Egoitzan), eta Elikadura eta Dietetikari buruzkoa, Otsailaren 18an (Kultur Etxean).



Aranzadi Ikastolako ikas-bidaia

Jaca-ko Eskolapioen aterpetxera joan zitzaizkigun urtarrilaren 27an Aranzadi ikastolako 8. mailakoak. 112 neska-mutiko eta bost irakasle elkartu ziren ikas bidaia honetan. Eguraldi ederra aprobetxatuz, han ibili ziren eskiatzen jo eta ke. Zartateko ederrak bai, baina umore onez gainezka!



Heldu zaizkigu Karnabalak

1.300.000 pzta.ko aurrekontuaz, larunbatetik asteazken goizaldera arte luzatuko dira aurtengo Karnabalak. Larunbatean, 5.30etan, Txoronpi eta Pantxi pailasoen emanaldia; 7etatik 8etara, plazan, talde eta banakako Mozorro Lehiaketa (30.000 eta 20.000 pzta.ko sariak onenen zain); eta 11etan, dantzaldia Inguma taldearekin. Igandera pasatuz, aipatu eguerdiko hamabietan Udala Musika Banda izango dugula Novedades aretoan; arratsaldeko seiretatik aurrera, Xamatx Dantza Taldeak Luzaideko dantzak eskainiko dizkigute kaleetan zehar; eta 6.30etatik aurrera, plazan, erromeria Korkoil taldearekin. Festa bukatzeko, astearte arratsaldean Ikastetxeetako haur mozorrotuen kalejira Gazteleku fanfarrearekin; zazpiretan, TVT telebistaren saioa plazan (non herriko lagunek hartuko duten parte); 10.30etan Joselu anaiak, eta gauerdian, azkenik, sardinaren lurperatzea. Formal ibili!

Santa Ageda bezperan...

Asteartean Santa Ageda eguna zela eta, hor irten ziren astelehenean kalera Aranzadi ikastola eta San Martin Agirre ikastetxeko haurrak.

Makila eskuan, Santa Ageda bezpera degu kanta ezagunaren oihartzunez alaitu ziguten arratsaldea. Gehiegi entsaiatu ez zutela nabarmentzen zitzairen arren, ikuskizun polita eskaintzen zutela esan behar. Argazkia lekuko.



LETE

TOLDOAK

Kataide Pol/Ind. 14. Pab.
Tfnoa: 79 23 83 ARRASATE
BERGARA Tfnoa: 76 12 24
IURRETA Tfnoa: (94) 6 81 76 19

GIARTZU

(M. Isabel Hurtado)

DERMOESTETIKA OSOKO ZENTROA

Laser izpien bidezko erreperazioa
Erreperagailu elektrikoa
Korronte kapazitiboak
Boní Laskurain 3, Etxabea

Estetika Tratamenduak
Larruzal garbiketak
Kosmetika Espezializatua

Tfnoa: 76 35 71 BERGARA



✓ San Blas arrakastatsuak

Inoiz baino jende gehiago bildu zen joan den asteburuan San Blas jaiak ospatzera Ostiralean ekin zioten festari. Larogei lagun juntatu ziren Muñao Elkarteak, arrain sopa eta bildotsa afaltzera. Ondoren, Antzuolako Ibon eta Aitziber Gezalagak alaitutako erromerian dantzatu zuten.


Larunbat arratsaldean jokaturako III. San Blas Mus Txapelketan ere parte hartze haundia izan genuen. 40 bikote aurrez aurre, eta azkenean txapela Rico anaientzat izan zen, finalean Juaristi eta Aristik osatutako bikotea gairatu eta gero.

Domekan, Inoiz baino jende gehiago hurbildu zen bai meza entzutera, bai Opil Bedeinkapenera, bai Amabirjina berriztua ikustera eta bai Muñao Elkarteak edatera ere.

Bergarako Dantza Taldeko partaideak izan genituen jaiak alaitzen, gaztetxoak kukañetan jardun zuten bitartean. Auzoko ezkondu eta ezkongabeen arteko sokatira desafioa, ordea, bertan behera gelditu zen; zer, eta soka aproposik aurkitu ez!

✓ Ikastaroak Lanbide Heziketan

Martxan daude L.H. Institutuan, 40 orduko Arautu Gabeko Ikastaroak. J. A. Etxeberriaren ardurapean, Kalitate Kontrola, Zerbaki Kontrola, eta beste hainbat arlo jorratuko dituzte. Xehetasun gehiago 76 24 91ean.




✓ Obrak kanpoko piztinaran

68 milioi pza.ko gastuaz, Culligan enpresak kanpoko piztinaran konponketei ekingo dio. Ura tratatzeko hiru filtro berezi izango dituen etxola, tuberia eta baldosa berriak, dutxak, etab. jarriko dituzte. Asmoa, ekainerako bukatzea.

AE

ELKORO ANTENAK



- TB Satellite bidez
- Telebanaketa

ARRASATE

Tfnoa: 79 18 86



UDAL MUSIKA BANDA

Otsailak 10ean
eguerdiko 12,30etan
Novedades Aretoan,
Kontzertua

Zuzendaria: Alfredo Gz. Chirlaque

Ekologistak nahiz erakundeak

Denbora baten ibai garbiantan jolastu eta gero gordezen ziren arraintxoak galdu dira. Betiko?

Mendietako freskura ederra; iturburuak eta errekatxoak nonahi; hainbat koloretako txoriak kantari; klase guztietako abereak, nahiz domestikatuak, nahiz he-

“Har ezazu fruitua, arbola mindu gabe”

zigabekoak. Edertasun hura badoa pikutara, eta erne ez bagaude zakar piletan murgildurik itotzeko bidean goazela esan genezake.

Ingurugiro hau, orozalatasunak edota goranahiak dakarkiguna dugu, zalantzarik gabe. Baina, gizonaren goihelburu nagusia dela ere, aitortu beharko dugu, noski. Ezingo dugu jarraitu, mendeetan zehar, urrikitasunaren menpean, gure lurrak eta inguruaren osotasunen truke. Hartu genezake neurri berezi batzuek aurrepideari galera gehiegi ipini gabe, gizonaren aldaketek jarrai dezaten bere bide egokienei begiratuaz.

Egun gutti dela, Elorregi auzoan nintzen, Etxezarreta jauregia eta bere inguruaren

ikusmiran.

Deba ibai ondoan, baztertxoan kokaturik, Bergararik Arrasaterako errepidean ezkerretara dagoen zubitxoak, denak estalki gabe, hondamendi osoan eroriak daude. Ostera, ikus daitezke basarte multzo ederrak. Haritz, pinu, haltz, txopo, etab., ingurugiro fresko berezi bat babesten dutenak.

Autobide proiektu berria burutuz gero, sortu dira hemen ere eztabaida biziak.

Ekologistek, agertu dituzte euren ardurak, Erakundeen eskema salaturik, esanaz, beldur direla ezkutuan dagoen baztertxo hori, hondamenean erori litekeelako. Hauek ere badute zer esan



eta zer egin gai honetaz. Eurak ditugu gizadia esnatzen eta pil-pilean jartzen ari diren indar alternatiboak, beren azertu, hutsegite eta radikalismoak barne.

Bestalde, hor daude Udaletxeak, Aldundiak, Eusko Jaurlaritza, Madrilgo Gobernua... Hauek ere, aurpegi eman beharko diote infraes-



Juan Mari Errasti

truktura, bide berri eta beste hainbat egitekeri, gaur egungo bizimoduak eskatzen dizkigun harrerak prestatzerakoan.

“Hartu ezazu fruitua, arbola mindu gabe”, dinue au-

deak aurkitzerakoan; talde bakoitzak dituen arrazoiak mahai gainean ipini, eta modu berean sakonki azpimarratuaz.

Gaur egun, garbi ikusten dugun egoera zera da: Eguneroko paperetan irakurtzen diren txostenez aparte, gure ingurugiroa hobetzeko, praktikoki, gauza gutti egiten dela arazo larri honi aurre emateko, eta, gizarteak ezin dezakeela denbora galtzen jarraitu, zaborrak eta piztiak ugaltzen utzi nahi ez badugu.

Paperagiriak alde batera laga, eta ekintza indartsuak martxan jarri behar litzukete jadanik, bai Udaletxe, Aldundi eta Gobernuak, ekologisten kontseilu serioak lagun dituztelarik. Ezin lezakete ahaztu, nahitaez, elkarren beharra dutela, helburu hauei irteera on bat ematerakoan.

Antonio Urzelai

rrekoek. “Heldu garan denboretan, gurdi garraioak ezingo ditugu kalera bihurtu, zaldi eta idiakaz bultzaturik”, esaten dute besteek.

Ez bata eta ez beste, esango nuke.

Ekologistak nahiz Erakundeak, elkarren beharrean dira gaur, inoiz baino gehiago, honako arazoei irtenbi-



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA

Carmen Gárate

Plastikoak eta narruzko gauzak

Bidekurutzeta Tfnoa: 76 13 23
BERGARA

Jon Lazkano

Paretan gora etengabeko desafioan

Jon Lazkano, Bergararra, 21 urte. Nahiz eta oztopoz betetako bidea izan, eskaladaren mundutik bizitzea amesten duen mutila.

Azken bi hilabeteak Chilen eman ditu, Patagonian, *Paineko orratzak* izeneko gailurretan bide berri bat zabaltzen. Lortu ere lortu zuen helburua urtarrilaren 27an.

Bidaiatik bueltan, ordubete luzea egon gara berarekin berbetan, paretak desafiitzen diharduen eskalatzailearen burutazio gazi-gozaok konpartitzen.

- Eskaladari beti erantsi izan zaio kirol arriskutsuaren fama...

Bueno, arriskua toki askotan dago, eskaladak ere badauka berea. Gertatzen dana zera da, neurri batean badagoela kontrol bat, hau da, bakoitzak nahi duen puntura arte arriskatzen duela bakarrik. Gainera, kirolaria geroz eta hobeto prestatzen da, materialeak geroz eta seguruagoak dira...ez da jendeak uste be-


zain kirol aldrebesa.

- Zu zeu, nola heldu zinen mundu honetara?

- Ikastolako lagunekin hasi nintzen. Ibili eta ibili, jendea ezagutzen hasi, eta geroz eta gehiago mugitzeari ekin nion. Horrela gaur arte.

- Bizimodu bohemioa ere izango da ba...

- Bai, trasteak bizkarrean hartu eta beti handik hona, hemendik hara, ez dugu denbora asko toki berean pasatzen; neguan toki eguzkitsu-



en bila, eta alderantziz, udan elurra dagoen lekuetara... dena den, beti planifikatzen dugu urtea etxean ere bolada luzeak pasatzeko.

- Estatu Batuak, Pakistan, Patagonia... dagoeneko makinatxo bat esperientzia ezberdin bizi izan dituzu. Seguruenik oroitzenak ere gazi-gozaok izango dira, ez?

- Noski, irteera guztiak ez dira berdinak, denek daukate euren berezitasuna.

Duela bi urte, adibidez, Pakistanera joan ginen bi lagun. Bestea gaixo jarri, eta egun oso gogorak pasa genituen, mendian gora, inor ez zegoen tokian...


Espainiako telebistarekin Himalayara egindako abenturan ere, harreman txarrak izan genituen madrildar batzuekin. TVEk eurekin joatera behartu gintuen diru truke, eta tentsio handia egon zen gure artean.

Halako tokietan, gainera,

beti egoten zara eguraldiaren zain, askotan egunak eta egunak kanpamentuan geldid...

Baina txanponak badu beste aurpegirik. Estatu Batuetako Yosemite-n eskalatzeari, adibidez, oso dibertigarria da. Eguraldi ederra egiten du, eta ia egunero irten zaitzake paretan gora egitera.

Era guztietako esperientziak, bai.



- Eta bukatu berri duzun etapa hau? Zer moduz aterata zaizkizu gauzak Chile aldean?

- Primeran. *Paineko Orratzetara* joan ginen bi lagun abenduaren 2an. Eguraldi txar xamarra zegoen, baina hasieran paretatik txikiak egiteko aukera izan genuen. Gero,

Kabia

Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

Mujika
Jantzidenda

BARRENKALE, 1 BERGARA
Tfnoa: 76 29 91

erdikoan bide berri bat zabaltzeari ekin genion. Laguna Gabonetan Euskal Herrira bueltatu, baina nik han gelditzea erabaki nuen, lanaren erdia baino gehiago eginda zegoelako. Hurrengo egunetan Jugoslaviar batekin jarraitu nuen. Eta bukatu, be-

☐ Nere bizimodua eskaladatik atera nahiko nuke, baina listo gehiegi dago mundu honetan!

rriz, han azaldutako Durangoko mutil batekin bukatu dut bidea. Urtarrilaren 27an lortu genuen gailurra.

- Jaso al duzu inolako laguntzarik abentura hau aurrera eramateko?

- Bergarako Udala, adibidez, oso ondo enroilatu da diapositiba batzuren truke. Eskertzekoa. Eta horretaz aparte *Diamir* erropa etxeak ere, goitik behera jantzi ninduen. Batetik eta bestetik, azkenean joateko posibilitatea eskuratu nuen.

- Eskalada munduko profesionala ari zara bihurtzen...

- Ja, dedikazio aldetik bai, baina profesional batek ko-bratu egiten du bere lana, eta nik momentuz oso diru gutxi ikusten dut, jarraitzeko lain bakarrik. Gainera kontu zaila



Jon Lazkano, *Paine Orratzean* gora. Diapositiba ikusgarria benetan.

da, *listo* asko aurkitzen dituzu; badakite beharrea zaudela eta aprobeixatu egiten dira. Izugarri gustatuko litzaidake nere bizimodua hemendik ateratzea, baina...

- **Kuriosidade bat.** Zer sentitzen da paretan gora zoazela?

- Lurra oso urrin dagoela, geroz eta urrinago.

- **Beldurrik bai?**

- Bai. Eguraldia dela edo bestea dela... kontua da askotan sortzen direla momentu tentsoak; baina bueno...

- **Lortutakoak, konpentsatzen al ditu pasatako guztiak?**

- Askotan ez dakizu. Beti ez, duda barik. Baina balantzan pisatu eta gero hemen jarraitzen badut, zerbategaitik izango da.

- **Pentsatu al duzu noiz-bait saltsa hau ahaztea?**

- Egun batzutan buruari galdetzen diozu ea ze osti egiten duzun han goian; gero ahaztu egiten zara horretaz, ordea, eta gauza berriak egiteko irrika sentitzen duzu be-

rriro, barru-barruan.

- **Hitzegin dezagun komunikabideez.** Askotan kritikatu izan zaigu mendiaren munduari ez diogula merezi duen oihartzuna ematen...

- Hori egia da, normalean komunikabideak istripuak gertatzen direnean egiten dute kasu; edo orduan, edo sekulako *azaña* lortu duzunean bakarrik. Bidaiatik itzultzen zarenean galdera bat egiten dizute, beti berdina: *gailurrik lortu al duzu?* Ezetz erantzunez gero, ez da inolako bigarren galderarik egiten; ez zergaitik, ia ezta zer moduz bueltatu zaren ere... Eta jorkaera hori ez dago ondo, ez horixe! Dena den, komunikabideak beti izango dira komunikabideak!

- **Eta hitzegi dezagun dagoeneko eskuartean dabilzun proiektu berriari buruz...**

- Bai, gauzak ez badira okertzen, udan Pakistanera joateko intentzioaz nabil. Gaur bertan jaso dut hango Gobernuaren baimena; tramite latza izan ohi da, eta hori behintzat gainditua dagoenez, ba hurrengo pausuak ematen hasi behar!

- **Zer pausu?**

- Ba pentsa, kontaktuak lotzen bakarrik, ikaragarriko burukomina; burukomina eta telefono faktura beldur-garria! Gero laguntzak bilatzen hasi, etab., etab... Begira, azkenean errazena pareta eskalatzea izaten da!!

ZABALA

JATETXEA - OSTATUA

LABEGARAITA
Tfnoa: 76 20 07

BERGARA

ederTu

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK

Barrenkale 23

Tfnoa: 76 29 65

BERGARA

GIPUZKOA
HORTZ-KLINIKA

- . ENDODONTZIA
- . HORTZ EZARKETA
- . HORTZ - ESTETIKA
- . PROTESI FIJOAK ETA MUGIKORRAK
- . ZIRUGIA
- . ORTODONTZIA
- . ODONTOLOGIA OROKORRA

Marisa Porta Peña Dok.a
Gabriela Porta Peña Dok.a
Pablo José Mármol Dok.
ODONTOLOGOAK

ARRASATE ZUMARRAGA
Iturriotz 7 bis- behea Soraluze,1
Tfnoa: 79 73 88 Tfnoa: 72 46 47

BERGARA
Simon Arrieta 3
Tfnoa: 76 38 54



**ETXE-
-AUNDI**

Negozio bazkariak
E z k o n t z a k
B a n k e t e a k

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

Zer eritzi duzu Karnabalei buruz ?



Itziar Muruamendiaratz
47 urte

Neri gustatzen zaizkit. Hasieran ez nintzen mozorrotzen, arraro sentitzen nintzelako; baina gero bai, urtero.



Miguel Moñux
33 urte

Ondo iruditzen zaizkit; neu, dena den, ez naiz mozorrotzen, egun txarra da asteartea.



Luis Etxebarria
46 urte

Jai ederra dela uste dut, herriari alaitasuna ematen diote. Joan zen urtean mozorrotu nintzen, eta aurten ere ea zerbait asmatzen dudan saltsan sartzeko.



Libe Txintxurreta
21 urte.

Ondo dabela uste dut, baina aurten ez naiz mozorrotuko, astearte gauean tabernan lanean egongo naizelako.



VID-ART

Bidriera artistikoak

**BIDRIERAK - MURALAK - ISPILUAK
KRISTAL BISELATUZKO ATEAK - etab.**

Belanbide z/g. BERGARA

Kaixo laguna:

Laster zabalduko da Bergaran lehenengo aldiz egingo den


BIDRIERA ARTISTIKOEN 1. ERAKUSKETA IRAUNKORRA

Hau dela eta, gonbidatuta zaude berau ikustera, eta badakizu
FABRIKAKO PREZIOAK DITUGU!

AZOKA
PLAZA

Autobus
geltokia

Frontoirako bidea



Erakusketa:
Astelehenetik Ostiralera, 11 - 3 eta 17 - 20
Larunbatetan 11 - 3

**Azal eiguzu zure ideia
VID-ARTEk egingo dizu.**

Enkarguak eta abisuak:
Tfnoa: 76 23 30 - 76 41 54
Fax: 76 41 54 (Bulego orduetan)
9 - 14 eta 16 - 20

• • • • •
 ETBko *Babel* saioko kamara izkutuak Bergarako plazan egon ziren joan den ostegunean. Bertatik pasatu zirenek, era guztietako bromak jasan zituzten: Udaltzainez jantzitako gaztea kalean erretzea debekatua dagoela esaten, edota haurrak kotxean pasiatzen ziharduten emakumeei gidabaimena eskatzen. Astearteko emanaldian frogatuta gelditu zen herritarren umore ona.



Zertan dihardute ba?

MIKEL MATILLA

33 urteko eibartarra, Antzuolako kartero berria dugu urtarriaren



22tik. Hiru urte eman ditu Madrilen lanean, eta azkenean onartu egin diote Euskal Herrira itzultzeko eskaria.

IZASKUN EGILETA

Usurbildarra, Kultur Etxeko liburuzain plaza eskuratu du. 40 bat lagun aurkeztu ziren proba egitera, euskara azterketa bostek gainditu zutelarik. Azkenean, Izaskunek lortu zuen kalifikaziorik onena.




IMANOL BOLINAGA

Laster batean Euskal Autonomi Elkarteko Lege Biltzarrak




Madrilera bidaliko omen du Senatore lana betetzera.

• • • • •
 UNEDek antolatutako arkeologia ikastaroen barruan, larunbatean Perugiako Unibertsitateko Emanuelle Curti izan genuen bisitari Bergaran. *Aztarnategia eta materiale arkeologikoei* buruz ihardun zuen bi ordu t'erdi luzez. Ikastaroaren hurrengo etapa, otsailaren 16rako prestatutako txangoa dugu. Partehartzaileak, hain zuen, Arabako Arkeologi Museora joango dira.



• • • • •
 65 urte bete ondoren, jubilatatu egin zaigu Joaquín Gillén Rodríguez. 1960ko urtarrilaren 11n autobus urbanoa jartzeko lizentzia eman zion Udalak, eta 1991ko urtarrilaren 31ra arte jardun du bertan lanean. Hogei urteko mutikoa bezala sentitzen dela dioen arren, onartzen du *garaiz erretiratzea garaipen bat dela!*



BOLINTXO OKINTEGIA, S. A.

Eta orain EIBARren IBARKURUTZ 4ean

Tfnoa: 76 16 93 BERGARA

Tfnoa: 79 63 42 ARRASATE



BEHERAPENAK ZUBIETAKO JUANAREN DENDAN

Hau dok barreguria

"Taketa" ona eta borondatetsua beste, aldrebesa ei zan. Gauza guztiak aldrebes esaten ei zittuan. Baiña tontotik ikutuik pe ez. Idurixon kriau zeuala, egualdi hotz eta euritsua zan baten, hala galdetu ei zotsan ugazabai:

- Hi, Martin, ardittara heu joango haiz ala neu geratuko nok etxian?

Beste behin piontzan zebillen eta 50na kiloko bi porlan zaku bizkarrian hartu eta azkenengo pisurairño, behin eta berriro. Zakuak botatziaz bat esan ei zeban:


- Santana-ko kondiak baleki zelako gustua hartzen dan zakuak botatzerakuan, segittuan probauko leukek.

Beste bergarar harek pe etzeukan bere buruan iritzi on ona: "Jangoikuak bere semia gizon bihurtu zebala? Hori eztoz ezer. Hain habilla bada gu gizon bihurtzia jaukak.

- Zer esan dosk medikuak?
- "Hidropresia" daukadala.
- Hidropresia ez, hik "ardaupresia" daukak.

Eibarko mediku bat joan ei zan inguruko baserri batera. Errezetia egitterakuan konturatu ei zan lapitzik etzeukala. Baserrixan be etzeuken eta klarion bat ekarri zotsen. Medikua hartu eta gaixuan kuartoko atian eskribidu zeban errezetia. Handik laster baserriko seme nausixa jetxi zan botikara, bizkarrian atia zeroiala.

Aur Euskaldunaren Eguna



1930eko abuztuaren 30ean eta irailaren 6an eta 7an Eusko Ikaskuntzaren V. Batzarra ospatu zen Bergaran. Primo de Riveraren diktadura erori berri eta Errepublikaren atarian, euskal kultura eta politikagintza berpizten hasiak zeuden garai honetan.

Ospakizun haundiak egin ziren gure herrian eta horietako bat "Aur Euskaldunaren Eguna". Hona hemen Batzorde antolatzailea: Telesforo Monzon, Jeronimo Etxaniz, Agustin Linazasoro, Mauricio Elorza, Jose Aristimuño, Jose Maria Agirre, Felix Agirreolea eta Pablo Saizar.

"El Día"n irakurtzen denez, irailaren 6an, goizean goiz 300 haur heldu ziren Euskal Herri guztitik. Dantzari, txistulari, kantari... kalejiran joan ziren Santa Marinako eleizaraino eta han Nemesio Etxanizek emandako meza eta sermoia entzuan zuten. Ondoren, plazan, Mutrikuko haurrek kantuan egin zuten, eta Soraluze, Aretxabaleta, Leiza, Zumarraga eta Oiñatikoek dantzan. Gero Leitzako Joakin Sukunza haur irrintzilariak oso saio txalotua egin zuen.

Ondoren bazkaria espolioan 300 haurrentzat, alkatea eta batzordekoak mahaiburu zirelarik.

Arratsaldeko 4etan, Seminarioan, euskarazko idatz-lehiaketa. Artean ez zegoen ikastolarik, baina hala ere 150 haurrek hartu zuten parte. Elvira Zipitria, Ignacia Munita eta Andres Arzelus izan ziren epaile. Maila oneko lanak omen ziren. Beste gela baten, "Sari berezia" (bizikleta eta erlojua) lehiatu zen. Bertara 28 aur aurkeztu ziren. Juan Aranguren, Justo Garate eta Resurrección María de Azkue izan ziren epaimahaiko.

Juan Martin Elexpuru

ANTIA HARATEGIA

URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri bildots, untxi baserriko oilaskoak

Matxiategi Tfnoa: 76 15 09 BERGARA

Pepelu

Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea
Tfnoa: 76 43 07



POL-POL TABERNA

Tfoa: 76 48 51

DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51

□ Igartua Mundialetan

Joan den asteburuan, Holandan jokaturako Munduko Ziklo Kross Txapelketan, afizionatu mailan korritu zuen Iñigo Igartuak.

Bizikletarekin arazoak eduki, ordea, eta ezin izan zuen aparteko gauzarik egin.

□ Mountain Bike proba

Igandean, San Blas Txiki eguna dela eta, Mountain Bike Txapelketa antolatuko da eguerdiko 12etan. Herriko kirolariek bakarrik har dezakete parte. Hiru maila bereiztuko dira: 14 urte arte, 14tik 18ra bitartekoak, eta 18tik gorakoak.

□ Ehiza Txapelketa

Datorren otsailaren 17an, nafarroako Ekai-Zuazen egingo den Txakur Ehiza Txapelketa dela eta, astearte eta asteazkenean ere zabalik egongo da izen emateko epea. Interesatuak, jo Oila-gorra Elkartera, 9etatik 10etara.

Jon Agirrebeña

Etorkizuneko Eski Txapelduna ote dugu Bergaran?

Jon Agirrebeña Garitano, 11 urteko mutikoa. Mariaren Lagundian dihardu ikasten.

Bost urtekin ekin zion eskiatzeari, lehengusu batekin joateko aukera izan zuenean.

Eta ez omen da makala elur gainean.

Joan zen urtean Euskadiko Slalom Bereziko Txapelketan hirugarren izan bagenuen, aurtan Slalom Giganteko proba irabazi zuen Astunen jokaturako Euskadiko Txapelketan.

Duela bi urte Pol-Pol Mendizale Elkartean federatua, Ainhoa Albistegi donostiarraren ardurapean entrenatzen da asteburuetan, Candanchun. Bost orduko saioak egiten ditu bai larunbat eta bai igandeetan.

Udan, elurrik ez dagoenean, ez du prestaketa fisikoa alde batera lagatzen.

Ariketak, edo mendira egindako irteerak...

Futbola ere asko gustatzen omen zaio. Aukeratu beharez gero, ordea, eskiarekin geldituko litzateke; horretan bait du bere zaletasunik haundiena.



Garestia dela gero!

Eskia garestia da. Desplazamenduak, arrastreak... Jonek, dena den, laguntza txiki bat jasotzen du talde baten barruan sartua egoteagatik. Eskerrak horri, maila hobetzen jarraitu dezake. Geroz eta hobe, azkarrago...

Motorzale sarituak

Euskadiko Motor Federazioak igandean eman zituen

1990 denboraldiko euskal motorista onenen sariak.

Donostiako egoitzan elkartu ziren sariak banatzera, eta tartean bergarar asko izan genituen: bost, hain zuzen ere.

Argazkian ikusten dituzue; eskerretik hasita: Jose Felix Elizburu (500 z.k.etan bigarren, eta 3. Seniorra), Patrizio

Bideluze (Moto Krossean, 2. Seniorra), Angel Bideluze (magalean alaba duela, 2. Seniorra eta 500 z.k.etan

Txapeldun), Joşeba Lopez (Jubeniletan, B multzoan

Txapeldun), eta Alex Elizburu (250 z.k. eta Junior mailan onena). Gure herriaren izena, goiaren goian utzi dute.



IGERILEKUKO

TABERNA

EGUNeko MENUA
AURREZ ESKATUTAKO
AFARIAK

Tfnoa: 76 53 55



Raiñabal
Gozotegia

ARTEKALE 9, Tfnoa: 76 11 83

BIDEKURUTZETA 20/22, Tfnoa: 76 12 19



Nekez ikusten da astorik 9belarri-luzerik behintzat) azken urteetako kamabaletan. Izan ere, egon ez dago astorik eta hala nekez antola liteke indixo burruka haundirik.

Erretratu honen garaiari, 1969.ean ia baserri guztietan egongo ziren eta Angiozartar hauek plazara ateratzea erabaki zuten. Dударik ez, gaur ere izango luketela arrakastarik. Erretratua, berez ez da Kamabaletan ateratakoa, San Migeletakoa da, baina orduan ez zegoen Kamabalik eta ahal zenean aprobetxatzen zen antzerako jai giroa sortzeko.

Goian agertzen direnak, ezkerretik eskumara: Jose Aldai, asto gainean; Sebastian Aldai, atzean; Jose Mari Garai; Juan Inazio Ugarte; Julen Orobengoa; Juan Luis Luarizaristi; Ramon Mari Loiti, atzean; Juan Mari Manzisidor, txiki bigoteduna; eta asto gainean, Mikel Aranzabal.

Estepan Plazaola
Erretratua: Imanol Irigarai

ERREKI
ERRETEGIA
 TXITXARRO ETA SAIHESKI JANA
 ASTEBUKAERETAN
 Fraiskozuri Enparantza
 Tfnoa: 76 38 51 BERGARA

GISASOLA BURDINDEGIA
 " Erratzu " " "
 Pedro Deuna 8, Tfnoa: 76 27 70 BERGARA



ETXEBIZITZA

- Pisu ederra salgai Irizar pasealekuan. Deitu 761708 Tfnoa.
- Pisu salgai edo alokairuan. Polita eta amueblatua. Deitu 762916 Tfno.ra, 21etatik aurrera
- Amueblatutako pisu bat alkitatzen da denboraldi baterako. Tfnoa: 861555, edo 862301.
- Pisu behar dut alkiterrean. Tfnoa: 764255.
- Gela independente bat alokatzen da. 762112.
- Etxe handia erosi edo alokatu nahi dugu. Markea bada, hobeto. 764507.
- Baserria salgai Berga-

ratik 3 km.ra. 770081, 10etatik letara eta 6etatik 8etara.

- Pisu salgai Koldo Elizalden. Tfnoa: 765823
- Lokal komertziala alkitatzen da bolun. Tfnoa: 763797.
- Pisu salgai Olan, konpondua eta amueblatua. Modu onean. 761669.
- Pisu alokatzen da Toki-Ederren. Gaez deitu 764988 Tfno.ra.
- Soto eta garajeak salgai Martokuan. Tamainu ezberdinetakoak. 761078.

LANA

- 16 urteko neska euskaldunak umeak zainduko lituzke 3retatik 9ak arte. Tfnoa: 764061.
- Emakume euskalduna behar da, goizetan umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 763157.
- Emakume bat eskaintzen da lanerako. 765403.

DENETARIK

- Alemaneko klase partikularrak. 765697.
- *Pastor Alemana* galdu zaigu. 6-7 hilabetekoa, ez dauka koilarrik. Aurkitzen baduzu, deitu 764632ra.

- Pintura klaseak. Tfnoa: 764014 edo 763493
- Ikasi josten zure astaldietan. 762858
- 20,50 m2ko garajea alkitatzen da Burdifiaten. Egin berria. 764003
- 55 m2ko lokala alkitatzen da. 765859, gaueko 9etatik aurrera.
- IPUIN dendaren albo lokala alokatzen da. Galdetu Ipuin-en.

SALDU-EROSI

- Karrerako bizikleta ia berria salgai. Kuadroa Mercier, pieza gehienak Zeus. Prezio ona. 763269

Hildakoak

Dominika Ormazabal Erostarbe

Otsailaren 4an. 80 urte

Juan Mari Eginu Zabaleta

Otsailaren 6an. 67 urte

BERRIGARA

Eskatu eta etxean



76 03 97

Dixula

TABERNA

Barrenkale 32, Tfnoa: 76 44 95



LIZAR

Altzariak

Dr. Fleming 5. Tfnoa: 76 16 53
BERGARA



MATRIKULA ZABALIK

MAILA GUZTIAK, EGA eta ALFABETATZE
Bulego orduak: 9 -1 eta 6 - 9

Barrenkale 18, 1. Tfnoa: 76 54 11



Pasiuan



OTSAILA



IKASLEEI

LAGUNTZEKO KANPAINA

5 Bizikleta Mountain-bike zozketatzen ditugu.
Montura eta lente graduatuak- 6.600 pza.

P. MANSO Optika

OPTIKOA, OPTOMETRISTA

Irizar Ibilbidea 2, Tfnoa: 76 27 86